

ria eta jaunartzea) S. Paulok, 1 Kor 10, 16-21.

Ik. Oparia; Jaunartzea; Aldareko sakramentua.

Elkartea

Erljio-hizkeran eurrez erabiltzen den hitza, fede bereko guztien eta bereziki horien artean bizitzezko edo bestelako lotura berezia dutenen bazkuna adierazteko.

1. Sin.: Bazkuna; Elkargoa; Batasuna (erak.). Adiera arruntez edozein eremutako bazkideen taldea edo erakunde adierazten du. Erljiozko eremuan sinonimo ezberdinak erabili ohi dira, halako helburu jakinak lortzeko asoziazio gisa.

2. Sin.: Komunitatea. Berezikiago erlijiozko giza taldea, edozein mailatakoa, fedezko eta bizitzezko *elkartasun izpirituailean oinarritzen dena eta hori areagotzeko sortua.

3. Sin.: Komentua; Komunitatea. Eliza Katolikoan, erlijiosoen hizkeran, adiera espezifikoa izan ohi du, etxe berean bizi direnen erlijiosoen *anaiartea edo *ahizpartea esaten duena.

4. Sin.: Komunioa; Konfesioa. Kristau-Elizaren zatitzean eta elkartasuna haustean, sorturiko Eliza bakoitza, barnean fedezko, gurtzazko eta erakundezko nolabaiteko batasuna eta *elkartasuna gordetzen duena.

* * * *

Erljio unibertsal guztietan (budismoan, judaismoan, kristautasunean eta islamismoan) fededunen batasuna elkarte berezitzat hartzen dute. Horixe adierazten du, horietako bakoitzak hartzen duen izenak ere: *Sangha budista, juduen Laos, kristauen *Eliza, *Umma musulmana; denek esanahi berdintsua dute: biltzarrea, herria,... elkarte.

Herri primitiboetan tribuarekin berarekin berdintzen da erljio-elkarte; era berean erljio etniko-politikoetan *gurtza ofizialarekin berdintzen da erljioa, eta beraz elkarte politikoa eta elkarte erljiozkoa erabat loturik eta ia berdindurik daude. Judaismoa erljio etniko-politikoaren eta unibertsalaren arteko mugan edo zegoen.

Tribuaren, etniaren edo elkarte politikoaren gaineko elkarte erljiozkoa sartzeko *errito bereziren bat egikaritzen dute: *sarbidadapen-erritoa, hain zuzen ere. Huru dira erabiltzen dituzten nagusiak: zirkuntzisia edo *erdainkuntza (musulmanek eta juduek), *bataioa (kristauek) eta *ordena (budistek). Era berean elkartetik botatzeko sistemak dituzte, *eskomikuaren bidez, kristautasunean nahiz budismoan gertatzen den

bezala. Hala ere budismoan ez dago eskomikurik *fedea urratzeagatik, *araubidea urratzeagatik baizik.

Elizan funts-funtsezkoa da elkarte konzeptua, elkarte eta Eliza, biak berdintzeraino sarritan. Funtsean hiru mailatan ikus daiteke Eliz elkarte: Eliza osoarenean edo munduzabalekoarenean, lekuan lekuko Elizarenean (parrokia, diozesia), oinarriko Elizarenean. Eliza unibertsala, Eliza partikularren elkartasunetik sortzen da, elkarte handia eratuz. Eliza gauzatzen, zertzen den maila guztietako kristau-talde bereziak elkarte osotzen du: bereziki diozesi-elkarte, parroki elkarte, oinarriko elkarte, etab.

Historian zehar sarritan sortu izan dira Elizan elkarte-sena eta -gogoa bizkortzeko eta kristau-biziera, norberaren eta elkar-tearen mailakoa, bilatzeko mugimenduak, gehienik Elizaren instituzionalismo- eta hierarkismo-joeren kontra.

Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren batez ere horrelako mugimendu berria biztu eta indartu da *katolizismoan; hainbat motatako kristau-elkarte txikiak sortu dira, elkarte-biziera fede mailan sakondu nahian: orokorki harturik, *oinarriko kristau-elkar-teak deritzate, nahiz eta joera ezberdinak egon beraien artean.

Honelako mugimenduen bidetik sortu dira, historian zehar, erlijioso-elkarte asko ere, beren instituzionalpen kanonikoa hartu aurretik. Horregatik, hain zuzen, institutu horien definizioa da, elkarte-biziera eta beraien oinarriko nukleoari erlijioso-elkarte (senitartea, anaiartea, ahizpartea, komentua) deritza.

Eliz lexiko ekumenikoan goian aipaturiko 4. adiera nagusitu da, honako hau esateko: Kristau-sakramentuak elkarrekin ospa ditza-ketenen kristau-taldea; honela, Elkarte anglikanoak, Ingalaterrako Elizaz gain, beregandik sorturiko beste Eliza episkopalianoak biltzen ditu. Era berean mintza gaiteke Elkarte Katolikoaz, Elkarte Ebanjelikoaz, Elkarte Ortodoxoaz, etab. Alde horretatik, *Konfesioa, *Demonizazioa eta *Eliza hitza-ren beraren sinonimoak dira elkarte edo komunioa.

Ik. Komunioa, 2; Elkartasuna; Maitasuna; Oinarriko kristau-elkarte; Elkarte(ko) biziera.

Paulo Agirrebaltzategi

Elkarte anglikanoa

Ik. Komunio anglikanoa.